

Gurasoak agur,

Mezu honen bitartez, ikastolako oharrak bidaltzen dizkizuegu, ondoko arloen arabera sailkatuta:

- OHAR OROKORRAK (OO)
- HH OHARRAK (HH)
- LH OHARRAK (LH)
- DBH OHARRAK (DBH)

OHAR OROKORRAK (OO)

OO. KILOMETROAK. GURE ZOZKETA

Azaldu da 60.000 €-tako sariaren irabazlea. Zorteak Azkoitia aldea argitu du. Aurrerantzean emango dizuegu informazio gehiago.

OO. DEATH CAFEa Zarautzen

Hemen gatozkizue berriz, Zarautzen antolatu dugun hurrengo Death Cafe-rako gonbidapena luzatu asmoz. Topaketaren funtsa heriotzari buruz libreki hitz egitea da leku atsegin batean, kafea edo infusioa eta bizkotxo dastatu bitartean. Helburua gizarte mailan heriotzaren inguruan ikusgarritasuna piztea eta tabuak apurtzea da, gaia hainbat arlotatik jorratuz.

Ez da dolurako laguntza taldea, baina norbere esperientziak elkarbanatu daitezke. Diru jasotzerik ez da bilatzen, ezta aparteko ondoriorik ateratzea ere. Konfidentzialtasuna eta errespetua balore garrantzitsuak dira.

Topaketa Azaroaren 5ean izango da, 18:30ean, Pedro Enea Jatetxean (Gipuzkoa kalea, 64).

Nahitaezkoa da partaidetza konfirmatzea, edukiera mugatua da eta.

OHARRA: partaideei 3€tako ekarpena eskatuko zaie, kontsumizioak ordaindu ahal izateko. Eskerrik asko zuen laguntzagatik!

OO. JANGELA

Jangelan egindako egokitzapenen ondorioz, itxaron zerrendan zeuden ikasleak zerbitzu hau erabiltzen hasi dira aste honetan.

OO. EGUERDIKO ANTZERKI IKASTAROA

Azaroaren 5ean eguerdiko antzerki ikastaroari hasiera emango diogu, taldea osatu baita. Irakaslea Patxi Santamaria izango da eta asteartero izango dute jarduna.

OO. ZORRIAK

Gure ikasleen burutan zorriak ugaltzen ari dira azken egunotan. Beraz, hemen dituzue aholkuak eta aste buru honetan garatu daitekeen tratamendua. (Iturria: Eskola-Osasuneko Programa. Osakidetza)

AHOLKUAK:

Zorrien kontrako produktuak zorriak agertzen direnean bakarrik erabili behar dira, eta ez prebentzio moduan.

Zorriak prebenitzeko modu bakarra ilea sarritan miatzea da. Gomendagarria da baita ere ilea egunero orraztea eta besteen orrazi, txapel eta ile apaingarriak ez erabiltzea.

Zure seme-alabetako bati zorriak edo partzak (arrautzak) ikusten badizkiozu, familiako gainerakoei begiratu eta eskolan jakinarazi ezazu.

TRATAMENDUA:

Parasitoen kontrako LOZIO bat erabili (permetrina dutenak dira gomendagarrienak), garondo eta belarri atzeetan ondo igurtziz eta 8-12 orduz eduki.

Ondoren, burua garbitu eta ur – ozpinez igurtzi.

Zorrien kontrako orrazi berezi batez eta eskuz partz guztiak kendu.

Garbitu ezazu arropa guztia (baita maindireak, toallak, etabar) ur berotan. Orraziak ordu betez alkoholetan eduki, desinfekta daitezten.

HANDIK 7 EGUNERA, TRATAMENDU BERBERA ERREPIKATU.

Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

ZUZENDARITZA

Estimadas familias,

Mediante el presente correo, les hacemos llegar las notificaciones referentes a actividades o información significativa, clasificadas en función de las siguientes áreas:

- **OHAR OROKORRAK / NOTIFICACIONES GENERALES (OO)**
- **HAUR HEZKUNTZA / E. INFANTIL (HH)**
- **LEHEN HEZKUNTZA / E. PRIMARIA (LH)**
- **DBH OHARRAK / E. SECUNDARIA (DBH)**

OHAR OROKORRAK / NOTIFICACIONES GENERALES (OO)

OO. KILOMETROAK. GURE ZOZKETA

Ya ha aparecido el ganador/a del boleto ganador del sorteo de 60.000 €. El premio ha ido hacia Azkoitia. Más adelante iremos ampliando esta información.

OO. DEATH CAFE en Zarautz

Aquí estamos de nuevo, para invitaros al próximo Death Cafe que vamos a celebrar en Zarautz. Se trata de un encuentro para hablar libremente de la muerte mientras se saborea un café o infusión y un bizcocho. El propósito es fomentar la conciencia social de la muerte desde varios puntos de vista para valorar la vida y romper el tabú que supone hablar de todo lo relacionado con la muerte. No es una ayuda al duelo ni un lugar de apoyo a experiencias personales. No pretende recaudar fondos. Tampoco pretende elaborar conclusiones del encuentro. Es confidencial y respetuoso. El encuentro será el 5 de Noviembre a las 18:30 en el Restaurante Pedro Enea (c/Gipuzkoa 64). Es imprescindible confirmar la asistencia, ya que el aforo es limitado.

NOTA: se va a pedir a los asistentes una aportación de 3€, que servirá para pagar las consumiciones. ¡Gracias por vuestra colaboración!

OO. COMEDOR

Gracias a las adecuaciones realizadas en el comedor, esta semana ha comenzado a utilizar este servicio el alumnado que estaba en lista de espera.

OO. CURSOS DE TEATRO AL MEDIODÍA

Os comunicamos que el próximo **5 de noviembre** comenzará el curso de teatro al mediodía, ya que ha habido suficientes inscripciones para formar el grupo. El profesor será Patxi Santamaria y las sesiones serán los martes.

OO. PIOJOS

Últimamente hemos apreciado el incremento de los piojos en las cabezas del alumnado. Por ello, os enviamos unos consejos y un tratamiento que podéis aplicarlo este fin de semana. (Fuente: Programa Salud Escolar – Osakidetza)

CONSEJOS:

No utilice los productos contra piojos como preventivos, sino sólo en el momento en que aparecen los piojos.

La única forma de prevenir es revisar el pelo de forma rutinaria, y otras medidas como cepillar el pelo diariamente, no compartir peines, gomas, gorros, etc.

Si descubre piojos y/o liendres en su hijo o hija, revise el pelo a los restantes miembros de la familia, para evitar de nuevo el contagio y avise al colegio.

TRATAMIENTO ESPECÍFICO:

Aplice al cuero cabelludo seco una LOCIÓN antiparasitaria (las más aconsejables son las que contienen permetrina), insistiendo sobre la nuca y detrás de las orejas, manteniéndola de 8-12 horas.

Después, lave la cabeza y enjuáguela con una mezcla de agua y vinagre.

Elimine todas las liendres con un peine de púas finas o a mano.

Lave toda la ropa (también sábanas, toallas,...) en agua caliente y desinfecte los peines con alcohol durante una hora.

REPETIR EL MISMO TRATAMIENTO A LOS 7 DÍAS.

Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

ZUZENDARITZA